

KANALAK

Gure helburua ez da geroz eta bezero gehien lortzea baizik eta, ditugunak mantentzea eta haiei euskara ondo irakastea. Horregatik, hainbat kanalen nahasketen bidez iragarriko dugu gure zerbitzua.

Hasteko, Webgune bat sortuko dugu bertan gure zerbitzuari buruzko informazio guztia txertatzeko. Horrela edozein pertsonak modu errazean eskuratuko du proiektu honen berezitasun eta ezaugarriak.

Webgunea hainbat ataletan bereiztuko da:

1. **Nor gara?:** Gure taldearen aurkezpen txiki bat egongo da, partaide guztien argazki bat, zerbitzua sortzearen arrazoiak eta honen helburuak azalduko dira.
2. **Plangintza:** Ordu-tegi orokorra, hau da noiz irekitzen dugun eta noiz itxi, lokalaren kokapena...
3. **Ekintzak:** Zerbitzuak zertan datzan azalduko da; hala nola, zer materia irakatsiko den eta nola.
4. **Argazkiak:** Lokalaren instalazioak nolakoak diren eta ikasleen zenbait argazki.
5. **Kontaktua:** Zerbitzuaren e-maila eta telefono zenbakia.
6. **Hizkuntza:** Webgunean jarriko dugun informazioa frantsesez, gazteleraz eta ingelesez egongo da idatzita, horrela bakoitzak nahi duen hizkuntzatan irakurtzeko aukera emango dugu.

Hori gutxi balitz, sare sozialetan kontu bat irekiko dugu, hain zuzen ere, Facebooken eta Instagramen. Umeen gurasoei baimena eskatu ondoren, ikasleen argazkiak jarriko ditugu, era berean, instalazioaren argazkiak, eta proiektuari buruzko xehetasunak. Informazio edo eduki hau eguneratzen eta berritzen joango gara. Familiak, partizipe egingo ditugu, hainbat ekintzen bitartez, beraien inplikazioa lortuz. Gainera, telefono-zenbaki bat eta gure posta elektronikoa ipiniko ditugu, edozein zalantza edo galdera argitzeko.

Lehen aipatu bezala, zenbait poster jarriko ditugu herriko tabloideetan. Poster hauek, gure zerbitzuaren inguruko informazioa edukiko dute atal desberdinetan banatuta: zer egiten dugun, zein den gure helburua, lokalaren kokapena, zeinentzako den... Etorkinek euskara ulertzen ez dutela jakinda, posterrak gazteleraz edota ingelesez izango dira. Hala eta guztiz ere, informazio gehiagoren bila badabiltz, gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute telefono zenbakiaren bidez.

Ikastoletara joango gara gure zerbitzuari buruzko hitzaldiak ematera, eta hauek 20-30 minutukoak izango dira. Euskara ikasi behar duten haurrek informazioa erraz eta eskura izan dezaten, eta era berean herrian zehar ikusgaitasun gehiago lortzeko.